

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BILBOKO UDALAREN 2016-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den azaroaren 29an Bilboko Udalaren eta bere tokiko 3 erakunde autonomoen, 2 enpresa erakunde publikoen, 7 sozietate publikoen eta fundazio baten ekonomia-finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2016ko ekitaldikoa.

HKEEk aldeko iritzia eman du Bilboko Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakunde guztien kontuena, nahiz kontularitzako doiketak azaleratu diren, Udalaren Diruzaintza Geldikina 23 milioi euroan murriztuko luketenak. Bestalde, ibilgetuaren balioan akatsak egin dira bai Udalean, bai Udal Etxebizitzak TEAn, bai Aisia eta Kultura Azkuna Zentroa SAn ere.

Txostenak fiskalizazio-gai izan den Kontu Orokorraren **finantza egoera** aztertzen du eta azpimarratu du aldi guztian sortu den aurrezki garbi esanguratsuak bide eman duela **hiru ekitaldietan kapital eragiketen defizitari aurre egiteko** eta Diruzaintza Geldikina areagotzeko. Azpimarratzekoa da, berebat, 2016ko ekitaldian 2015ekoaren aldean gastuen bolumen eta egiturari eutsi zaiola.

Halaber, txostenak ondorioztatu du Udalaren kontu-hartzaitzak jaulkitako txostenaren arabera, **2016an aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun eta gastuaren araua bete dela**. Txostenean jasotako Udalaren mendeko sozietate ez finantzario modura sailkatutako erakundeei dagokienez, Kontu-hartzaitzak ondorioztatu du orekan daudela edo finantzatzeko gaitasuna erakusten dutela.

Udalak eta gainerako erakundeek zuzentasunez bete dute euren ekonomia-finantzazko jarduera arautzen duen lege arautegia; alabaina, unean uneko zenbait ez-betetze azaleratu dira honako atal hauetan: Kontratazioan, kontratuak luzatu dira epea gaindituz eta 730.492 euroren hainbat gastu egin dira publikotasun eta/edo lehia printzipioak urratuta; Langilerian, Bilbao Musika TEA, Bilbo Ekintza eta Bilbao Kirolak-en aldi baterako kontratuak kontratu mugagabe bihurtu dira hautaketa prozesurik bideratu gabe eta azken bietan birjartze tasa gaindituta, borondatezko erretiroari sariak, ezintasun iraunkorra eta enplegatutako publiko izaerari uko egitea PFEZtik salbuetsizat jo dira eta 2011ko abenduaren 31 baino lehenago kontratatu gabe zegoen gizarte-aurreikuspeneko

erakunde bati ekarpenak egin zaizkio. Bestalde, HKEEk ezin egiaztatu izan du Cimubisan lanpostu bat betetzeko hautaketa prozesua, langileak hautatzeko enpresa baten bitartez gauzatutakoa.